

## ELIZA ETA EUSKARA

Elizak, bere eginkizuna gure herrian burutzeko, euskara behar du. Jaunagandik hartu duen eginkizuna hezurmamitzeko, salbazio-mezua aldarrikatzeko ezinbestezkoa du bertoko hizkuntzaz baliatzea. Eliza ez da berarentzat bizi. Jainkoak guri digun maitasuna, Jesukristo bere Semearen Gizakundean, Heriotz eta Berpizkundean burutu izan da. Eta Eliza salbazio-misterio horren sakramentu da, gizon-emakume guztien salbamenaren sakramentu, munduaren zerbitzari.

Bere eginkizuna bete ahal izateko, herrialde guztietako hizkuntzetan eskaini behar du salbamenaren mezua. Adibidez, italiarrei italieraz, greziarrei grekoz, euskaldunei euskaraz eginenez.

Lehenengo eta azaletiko gainbegiraturia emanenez, elizak zeregin hori nola bete duen adierazten saiatuko naiz, lerro urri hauetan.

### **Lehena**

Handi-handika aztertuz eta idazleak eta idazlanak begi zorrotzegiz eta kritikoegiz begiratu ezik behintzat, ematen du Euskal Herrian izan den elizak nahiko ongi bete izan duela zergokion eginkizuna, hainbat gizalditan zehar.

Axular, Kardaberatz (“euskerak burua jasotzea Jainkoak naitu”), Mendiburu, Olaetxea, Gerriko, Agirre J.B., Lizarraga, Mogel, Añibarro, Lardizabal, Uriarte, Agirre D., Azkue, Olabide, Eguzkitza... eta beste elizgizon askok eta askok osatutako lan eskerga eta etengabea dugu, ezin ukatuzkoa den ibilbide oparoaren lekuko. “Euskaldunei euskaraz” goiburua irizpide sakon eta bultzagile bilakatu izan da, idazteko ezten, eta Jesusengandiko Berri Ona aldarrikatu eta zabaltzeko premia eraginkor. Misiorako, ez berarentzako elkarte, den eliza-ren betebeharrak izan du, bai, hezurmamitze oparo eta zabalik 16. mendetik gure aldira arte. Kristau ikasbideek eta fede eta erlijio liburuek egundoko “corpus” aberatsa osatu dute gure artean.

Kalagorriko gotzainen oniritziak eta aginduak ere ezin utz ditzakegu aipatu gabe: “Que los prelados hagan imprimir cada año Doctrinas Cristianas, en lenguaje acomodado a las Provincias” eta “Que en la tierra vascongada los Sermones sean en Vascuence” zioten 1600ean eta 1698an, 1700.ean Madrilen argitaratutako konstituzioak: Constituciones Synodales antiguas y modernas de Calahorra y La Calzada. Reconocidas, reformadas, y aumentadas novísimamente por el Ilustrísimo Sr. D. Pedro de Lepe, obispo deste obispado, en el Synodo Diocesano, que se celebró en la ciudad de Logroño, en el año de mil seiscientos y noventa y ocho.

## **Vaticano II Kontzilio ondoren**

Vaticano II Kontzilioak, 1963ko abenduan, liturgia herri-hizkuntzan ospatzeko bideak zabaldu zituen. Elizak, lehenengoz bere historian, hizkuntza guztiak onartzen ditu elizkizunetarako eta Meza ospakizunerako hizkuntza ofizial modura. Eta behingoan hasi ziren liturgi mundurako itzulpen-lanak.

Euskal erlijioso eta apaiz asko fin-fin aritu dira, eliztarrenganako artzain-ardura estimagarritz, eliz-testuak euskaratzen.

Neke eta eragozpen guztiak gaindituz, kristau mezua geure ama-hizkuntzan aldarrikatu nahi izan dute, ulergarria eta esanguratsua gerta dadin. Elizbarruti-arteko lan taldeak lehenengo, eta elizbarruti-arteko batzordeak gero, gogotsu eta zintzo ekin dio lan amaigabe horri.

Oso ximplea izan da bai taldearen eta bai batzordearen lan-metodoa. Oinarrizko itzulpena prestatzen izan da, eta elizbarruti arteko taldeak elkarrekiko bileretan aztertzen izan du, jatorrizko testuarekiko leialtasuna eta euskararen egiturazko egokitasuna bilatzen saiatuz. Askoren ekarpenak eta esku askoren azarnak dituen lan hori despertsonalizatu egiten izan da, berdintasun batera eramanez eta zenbait idaz-irizpide jakin erabiliz argitalpenerako.

Argitalpen ofizialetan euskararen bi erabilera bereizten izan ditugu: *liturgiaren arlokoa*, euskalkietan errotua, eta erabilera *batua*. Liturgiarako baliabideetan eta antzerako idaztietan argitalpen hirukoitza egitera bultzatu izan gaitu oinarrizko pedagogi-planteamenduak: Baionarakoa, Donostia-Gasteiz-Iruñearakoa eta Bizkairakoa.

Liturgi-arloan egin izan da lan bateratuena, nahiz eta gotzainen pastoral idazkietan, katekesirako liburuetan eta gainontzeko baliabideak eratzean ere asko aurreratu dugun.

Lan isil, etengabeko eta itzelezko horren fruitu ditugu:

Mezaren egunerokoa, Irakurgaiak A.B.C.; Mezaliburua. Irakurgaiak. Itun Berria. Katekesi Idazkaritzek eta Gizarte Idazkaritzek egin eta argitaratutako agiriak. Hego Euskal Heriko Gotzainen pastoral idazkiak. Sakramentuetako "Ritualak". Haurtzaroko Katekesi Prozesoa 1985-88. Elizen arteko Biblia 1994. Haurtzaroko Katekesirako Elizbarruti arteko Ibilbidea 1998-2.003. Katekumenotza erako Helduen Katekesia. Ibilbide berria 1999-2.003. Euskal Bideoak 1994-2.000... eta beste asko.

Berrogeita hamarren bat lagun izan gara, milaka ordutan, elizbarruti arteko taldean jo eta ke jardun dugunak, Baiona, Iruñea, Bilbo eta Donostiako elizbarrutietakoak gehienbat, baina banakaren bat izan da Gasteizkotik ere.

## **Geroa**

Geroari begira badugu apaiz batek bedeinkatu ahala zeregin eta ardura. Egindako guztia berrikusi beharra dugu, eguneratua izan dadin, berritzen ari diren eta falta zaizkigun “ritualak” eta beste gainontzekoak ganoraz egitea.

Horrezaz gain, elizan ditugun baliabideak sendotu eta indartzea eskatzen zaigu: Labayru Ikastegia, Euskal Ikastaroak, Irakasle-Eskolak, Bizkaia Irratia, Gotzaindegietako Aldizkari edo komunikazio-agiriak...

Teologiako gai nagusiak euskaraz argitaratzen ari gara, euskaraz eginak edota euskarara itzuliak. Badago nondik ibili eta ekin. Arduraz eta erne jokatu beharko genuke Unibertsitatean, Eliz-Institutuetan, Seminarioetan eta Elizaren izenean ditugun beste Ikastegietan... Euskaraz hitz egiten ote diote erakundeok gure Herriari?

Eta zuhur-zuhur ibili beharko dugu, aspaldidanik pizten ari zaizkigun zenbait “argi gorri” beldurgarrik gure ingurua erre ez dezan. Aspaldian gure artean ugaritzen ari diren eta “elebiduntzat” jotzen diren Mezak, Hileta Ospakizunak, Otoitzaldiak, Elizbarrutiko Kontseiluen Bilerak, ... zuzenak ote dira euskaraz bizi izatea benetan bidera dezagun?

Azken urteotan erakunde askok aurrerakuntza handiak egin dituzte. Sarri eta luzaro aurrelari eta eredugarri izan den elizak ireki bitza bide egokiak, behinola Paulok Korintoarrei esana gogoan izanik:

“Begira, senideok: hizketa arrotzez hitzeginez aurkeztuko banintzaizue, zer on ekarriko lizueke horrek, nire hitzak ez ba-

lizue emango agerpenik, ez ezaguerarik, ez Jainkoarengandiko mezurik, ezta irakaspenik ere. [...] Berdin zuek ere: hitz ulergarriak ez badituzue adierazten, nola jakin zer ari zareten esaten? Paretari hitzegiten ariko zinatekete” 1 Ko 14,6-9.

*Lorentzo Zugazaga*